

Europaren erronka izango da EAJk Alderdi Egunean garatuko duen mezua

Independentzia aldarrikapenak «inora» ez doazela berretsi zuen Egibarrek

Europazaletasunaren ideia izango da EAJk Alderdi Egunean garatuko duen mezua nagusia. Joseba Egibar EAJko eledunak zehaztu zuenez, «Europa hitzak EAJren azken urteotako estrategia laburbiltzen du». EAJren eguna Gasteizeko Salburuako zelaian izango da hilaren 29an.

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Atzo Bilbon emaniko prentsau-nekoan, Egibarrek azaldu zuen 'Europa Irabazi' lema EAJk igorri nahi duen mezua indartu nahi dela, 1991ko urtarrean Europako Komunitatean batasun ekonomikoan sartzeak Euskal Herriaren etorkizuna baldintzatzen bait du, bere iritziz. «Europa —azaldu zuen Egibarrek— zaila eta korapilatsua datorren mundua da. Langileek, enpre-riek, erakunde instituzional eta kulturalak ohartu behar duten erronka da. Hori soilik gaindi daiteke buruan argi edukita une honetan Euskadi autonomia osatzen dugun herrialde guztien etorkizuna datorren urteetan ipiniko dela jokoan».

Egibarrek adierazi zuen Euskal Herria «gero eta marko ekonomiko, kultural eta politiko» handiagoan kokatu dagoela. «Autokonpasioa, isolamendua eta defentsako itxikeriak» arbuatu zituen, etorkizuna bide horretatik ez datorrela gaineratuta: «Aitzitik, etorkizuna begiak inguratzeko gaituenari begiratzen dago».

Alderdi Egunean igorriko den mezua, «une honetako premiei egokitu beharra» izango dela azaldu zuen Egibarrek, «zentzu didaktikoa ere eman nahirik».

«EAJko buruzagi batek 1931n esan zuen bezala, alderdiaren jatorria eta izateko arrazoia den ezeri uko egin barik, hau da, euskal aberriari guztiz emateari, EAJ gaur egun ere jabetu egiten da edozein uneko ekin-

tza guztia egokitu egin behar da, une posibilitateetan zentzuna ez galtze-ko», adierazi zuen.

INDEPENDENTZIA ALDARRIKAPENAK INORA EZ

«EAJk —segitu zuen EBBko eledunak— Euskal Herriaren subiranotasuna izan daitekeenari uko egin barik, berriz aldarrikatzen du autodeterminazioari haren egitea, lurralde batasuna gradualki eta demokratikoki lortuta, gure herria politikoki, ekonomikoki eta kulturalki indartuz, horixe bait da gure iritzian euskal nazionalismoaren eginbehera datozen urteotan».

Independentzia aldarrikapenak «inora» ez doazela iritzi zion buruzagi jeltzaleak eta egiten dituztenei aldarrikapen «huts» horietan «ezkutatzea» egotzi zion, «beste ezintasun batzu ordezkatzeko».

Ildo honetatik «KAS eta HBko munduari» deitu zion «behin betikoz» aurkeztu dezaten «herri proiektu erreala, Euskadi gaur egungo

koordinadetan kokatuta». Era berean, «proiektu iraultzaile globalei» uzteko eskatu zion.

Amedo eta Dominguez Entzutegi Nazionalak ezarri dien zigorrari buruz, Egibarrek esan zuen EAJ bete egingo duela baina halere ez dagoela pozik, talde armatuko partaide izatearen zigorra ezarri ez dietelako. «Bakar batzuentzako izan daiteke ekintza isolatua baina ezin da ahaztu funtzionariak zirela. Guk konbikzio morala baino zerbait gehiago dugu ekintza isolatuak baino zerbait gehiago direla», esan zuen.

✓ «EAJk Euskal Herriaren subiranotasuna izan daitekeenari uko egin barik, berriz aldarrikatzen du autodeterminazioari haren egitea».



Irailaren 29an ospatuko duen alderdi eguna aurkeztu zuen EAJk.



Atzo aurkeztutako ihardunaldiak urriaren 22tik 26ra egingo dira.

OIALDE

Euskariak nazioarteko sinposiuma egingo du subiranotasunari buruz

F.I. / GASTEIZ

Urriaren 22an hasi eta 26a arte «Europako estatu gabeko herrien subiranotasuna berreskuratzeko prozesua» lemapean nazioarteko sinposiuma antolatu du Euskariak. Euskal Herriko lurralde guztietan egingo dira ekitaldiak, eta bertan Euskal Herriko eta estatua lortu gabe edo duela gutxi lortu duten ordezkariak izango dira. Kroazia, Eslovenia, Lituania, Georgia eta beste hainbat lekutako politika, kultura eta ekonomi arloetako gizon eta emakumeak izango dira Gasteiz, Donostia, Gernika, Bilbo, Iruñea eta Baionan.

Euskariako arduradunek adierazi zuten, sinposiumak hiru helburu ditu. Batetik, Ekialdeko subiranotasuna eskuratzeko prozesuak gertutik eta bertako protagonisten ahotik eza-gutzea, eta aldi berean, Euskal Herriari bizi den prozesuarekin alderatzea. Bestetik, Euskal Herriari autodeterminazioa indarrean jartzeko azaldu diren zailtasunak ikertu eta aldarrikapen horren inguruan «giro positiboa» sortu. Eta azkenik, Ekialdeko herri subiranoekin harremanak estutu.

Bost ekitaldi egingo dira, bat egun bakoitzeko, hitzaldiak eta eztabaidak barne, egun bakoitzean herri desberdin bat eta Euskal Herriko hi-

zlarien partaidetzarekin. Lehenda-biziko biak Gasteizen izango dira eta beste hirurak Donostian. Hortik aparte bi ekitaldi egingo dira; lehena Gernikan urriak 25, «1839ko egun horretan Euskal Herriak subiranotasuna galdu zuela gogoratzeko» eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Bigarrena Donostian hurrengo egunean sinposiumaren bukaera ekitaldian.

HIRUKOITZA HAUSTEAREN AURKA

Kanpotik etorriko diren izenak oraindik zehazteke badaude ere, Euskariak ziurtat jo zuen Sayudis Lituaniako mugimenduen partaideak izango direla. Halaber Esloveniako «Peace Institutuko» lehendakaria eta Kroaziako nekazal ministroa, Euskal Herriatik J. M. Gorordo eta J. Biguri ekonomi arloan, T. Montero, J.F. Azurmendi, Mirentxu Purroy eta J. Lezaun nabarmendu zuten Euskariakoek.

Bestalde, Euskariak «ez du ulertzen» zergatik hautsi den EAEko hirukoitza. «Ez da batere erraza alderdi nazionalista batek beste alderdi nazionalista bat kanporatzea ulertzen, autodeterminazio eta independentzia eskatzeagatik» adierazi zuten. Euskariak ziurtatu duenez, alderdiko interesak Euskal Herriaren gaitetik izan dira krisi honetan.

ETAko komando ibiltariko ustezko kide batek gose greba hasi du

PARISE

Panpi Erramundegi ETAko komando ibiltariko ustezko kideak gose grebari ekin zion joan zen astelehenean, epaileak aske uzten ez duelako protestan.

Erramundegi Pariseko Sante presondegian dago eta bere abokatua den Christiane Fandok jakin erazi duenez, epaileak askatasuna ukatu zion hilaren 2an. Euskal presoak ustez burutu zituen atentatuen lekudere egunotan ari dira epaileen galderetaz, Espainian.

Pariseko epaileak dioenez, ezin du Erramundegi aske utzi, honek lekukoak presiona ditzakeelako.

Christiane Fanco abokatuak epailearen erabakia kritikatu du, komando ibiltariko ustezko beste kide bat aske utzi bait du. Philippe Saez Erra-

mundegirekin batera atxilotu zuten 1989ko apirilean eta kargu berdinak leporatu zizkion arren, epaileak aske utzi du.

Erramundegiri hiru «hilketa» egotzi zizkioten ETAK egindako beste hiru atentaturengatik —1978 urteko azaraoren 2an eta 16an eta 1979ko urtarrilaren 3an—.

Atxilotuari «ekintza terroristekin zerikusia duen gaizkile taldeko kide» izatea ere leporatu zioten, baina kargu hau bertan behera utzi zuten joan zen martxoan.

Bere abokatuak delituaren preskripzioa eskatu zuen. Legedi frantsesaren arabera, ezin da inor zigortu hamar urte baino gehiago igaro bada ustezko delitua egin zuenetik. Hori zen Erramundegiren kasua, baina instrukziozko epaileak behin eta berriro ukatu egin dio askatasuna.

URGENTZIAZKO DEIALDIA

AZKENEAN, Lurraldea eta Gipuzkoako Diputazioa autobien gatazkaren inguruan adostasun batera iritsi dira.

HALA ERE, badira zenbait heuren alderdikeria dela medio itxaropenari ateak itxi nahi dizkietenak.

AKORDIOAK ZURE BEHARRA DU
Larunbatak 21ean, arratsaldeko 5etan manifestazio ixil bat abiatuko da Donostiako Ondarretatik, "AKORDIOARI BAI" lemapean.

AZALDU ZURE ADOSTASUNA

AKORDIOARI
BAI

LURRALDEA KOORDINAKUNDEA